

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabán, Bernedoko udalerrian, Angostina herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimenaren berrikustea

Espediente-zenbakia: RAV-A-2015-0035

Eskatzailea: Angostinako Administrazio Batzarra

Angostinako Administrazio Batzarrak Uraren Euskal Agentziako Mediterraneoko Arroen Bulegoari eskatu dio Angostinako herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimenaren berrikustea eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Bernedoko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 26a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
AZUCENA SALAZAR BAYONA